# IHITZA

Bigarren sasoia • Segunda época

PRIMAVERA • 2004 • UDABERRIA 13

**ESKOLA EKOLOGIKOA ERAIKITZEN • POR UNA ESCUELA ECOLÓGICA**

1,80 €



# PAISAIA: gure aztarna ekologikoa

www.euskadi.net/ihitza

IHITZA
ESKOLA EKOLOGIKOA ERAIKITZEN
Bigarren sasoia. 13. ZENBAKIA
2004ko UDABERRIA

PAISAIA:
GURE AZTARNA EKOLOGIKOA

POR UNA ESCUELA ECOLÓGICA
Segunda época. NÚMERO 13
PRIMAVERA de 2004

4015 Posta–kutxatila
48080 Bilbao
www.euskadi.net/ihitza
posta–e: ihitza@ej–gv.es

**Zuzendaria // Director**
Josu Erkiaga Laka
**Argitalpen–kontseilua // Consejo editorial**
CEIDA
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua // Servicio de Educación Ambiental del Gobierno Vasco
**Erredakzio–taldea // Redacción**
Isabel Prieto de Blas
Itziar Beasain Ingunza
Hasier Rekondo Laskurain
**Kolaborazioak // Colaboraciones**
Jaume Busquets
Santiago Campos
**Argitalpena // Edición**
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia // Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
**Maketazioa // Maquetación**
Begi Bistan
**Argazkilaritza // Fotografía**
Iñaki Díez Fernández
**Ilustrazioa // Ilustración**
Fernando Ibáñez de Elejalde Villate
**Itzulpena // Traducción**
Ana Santos Elortza
**Fotomekanika // Fotomecánica**
Xxxxxxxxxxxxxxxxxxx
**Inprimaketa // Impresión**
Xxxxxxxxxxxxxxxxxx

Kontsumitu osteko paper birziklatua %100ean
Papel reciclado postconsumo 100%

**ISSN:** 1135-6391
**L.G. // D.L.:** VI-825/92

CEIDA
- **Araba**
  VITORIA–GASTEIZ
  • ✆ 945 17 90 30
- **Bizkaia**
  BILBAO
  • ✆ 944 11 49 99
  URDAIBAI
  • ✆ 946 25 71 25
- **Gipuzkoa**
  DONOSTIA–SAN SEBASTIÁN
  • ✆ 943 32 18 59
  LEGAZPI
  • ✆ 943 73 16 97

**IHITZAk** ingurumen hezkuntzari buruzko eztabaidarako topagune bihurtzea du helburu. Hortaz, aldizkaria ez da bertan sinaturik agertzen diren artikuluen erantzule.

**IHITZA** pretende ser un foro de debate sobre educación ambiental y no se hace responsable de las opiniones expresadas en los artículos firmados.

# agur

*INGURUMEN HEZKUNTZAREN IKUSPUNTUTIK, PAISAIA, BATEZ ERE, DIZIPLINARTEKO LANA AHALBIDETZEN DUEN AZTERGAI ZABAL-ZABALA ETA NONAHIKOA DA, EZEIN GAI BAZTERTZEN EZ DUENA.*

***Paisaiaren inguruko Europako Konbentzioak interes aparta aitortzen dio paisaiari ingurumen eta kultura arloetan, eta, aldi berean, gaur egun bizi–kalitatetzat hartzen dugunaren funtsezko alderdietakoa dela adierazten du, kalitateko paisaiak horren onuraz gozatzen duen biztanleriari ematen dion poztasunagatik.***

***Gogoan izan behar dugu paisaia errealitate dinamikoa dela, eta, horregatik, kalitatea galdu edo berreskuratu egin dezakeela. Ildo horretan,** Lurraldearen Antolamendua, Paisaien Kudeaketa, Paisaiaren kalitatea **eta horien moduko kontzeptuak esku-hartze politiko eta teknikoaren beharrean oinarrituta eratu dira, jarduera orok bera dagoen paisaian sortzen dituen elkarrekintza anitzak direla eta.***

***Ingurumen-hezkuntzaren arloan, paisaia aztertzea geure burua ezagutzeko ariketa da: geure bizitza garatzen den inguru hurbila nolakoa den jabetzen laguntzen digu, bai eta zergatik den horrelakoa eta ez bestelakoa jakiten, eta gure aurreko pertsonen bizimodura hurbiltzen ere, haien eguneroko lana gure paisaian inprimaturik geratu zelako. Atzera begiratzean datzan ariketa horrek hobeto lekutzen gaitu orainaldian, eta etorkizuna imajinatzeko eta prestatzeko aukera ematen digu.***

*PARA LA EDUCACIÓN AMBIENTAL, EL PAISAJE ES, ANTE TODO, UN INAGOTABLE Y OMNIPRESENTE OBJETO DE ESTUDIO que posibilita un trabajo interdisciplinar tan amplio que no hay materia que le sea ajena.*

*La Convención Europea del Paisaje reconoce que éste es un elemento de extraordinario interés ambiental y cultural, así como un aspecto fundamental de lo que hoy en día entendemos como calidad de vida, por las satisfacciones que un paisaje de calidad, aporta a la población que lo disfruta.*

*También hay que tener muy presente que el paisaje es una realidad dinámica, y, por tanto, susceptible de perder calidad o de recuperarla. Es por ello que conceptos como **Ordenación del Territorio, Gestión de los paisajes** o **Calidad paisajística** se han formulado a partir de la necesidad de intervenir política y técnicamente en este campo, dadas las múltiples interacciones que toda actividad genera en el paisaje que la alberga.*

*Trabajar el paisaje desde la educación ambiental supone un ejercicio de autoconocimiento: supone ser conscientes de cómo es el entorno cercano en el que se desarrollan nuestras vidas; conocer por qué es así y no de otra forma; y acercarnos a las vidas de las personas que nos precedieron, cuyo trabajo diario quedó impreso en nuestro paisaje cotidiano. Este ejercicio retrospectivo nos ubica mejor en el presente, y nos permite imaginar y preparar el futuro.*

***Sabin Intxaurraga Mendibil***
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILBURUA
CONSEJERO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

***Anjeles Iztueta Azkue***
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA
CONSEJERA DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**harpidetza // suscripción**

IHITZA **Hiru aleko harpidetza** // Suscripción por tres números **5,41 €**

***Izen–deiturak edo egoitza*** // Nombre y apellidos o razón social
. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
***Helbidea*** // Dirección . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
***Posta kodea*** // Código postal . . . . . . . . . . . . . . ***Herria*** // Localidad . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
***Herrialdea*** // Territorio . . . . . . . . . . . . . . . . . . . ***I.F.Z.*** // N.I.F. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
***Telefonoa*** // Teléfono . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . ***Faxa*** // Fax . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
***Posta–e*** // Correo–e . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . ***Zenbaki honetatik aurrera*** // Desde el número . . . . . . . . .

ORDAINKETA. **Egin zeure banku transferentzia Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren kontu zenbaki honetara: 2097 0178 11 0010963058. Ez ahaztu zeure datuak ordainagirian zehaztea. Bidali harpide agiri hau helbide honetara: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Donostia–San Sebastián 1, 01010 Vitoria–Gasteiz.**

FORMA DE PAGO. Transferencia bancaria a: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Número de cuenta: 2097 0178 11 0010963058, indicando quién hace el ingreso. Esta solicitud se enviará a: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Donostia–San Sebastián 1, 01010 Vitoria–Gasteiz.

# egon badago

## gaia zabaltzen

### *El paisaje como oportunidad*



**4** *La degradación del paisaje es una realidad global, ante la cual se ha reaccionado valorizando los paisajes diferenciados por su peculiaridad. En este contexto, el paisaje, como recurso omnipresente, se convierte en la mejor herramienta de educación ambiental.*
Jaume Busquets

## jakinaren gainean

**6** *Agenda, albisteak, irakurleen iritzia.*

## eta gurasoek zer?

### *De paseo por Laguardia*



**28** *Un paisaje se define por los usos a los que se dedica el territorio. En Laguardia podemos divisar un paisaje agrícola con siglos de antigüedad y un paisaje urbano igualmente histórico y atractivo.*

## begiratokia

### *Uno contra todos o todos para uno: la educación ambiental se hace política*

**25** *Ya está bien de hacer educación ambiental neoliberal: o nos enfrentamos a la tarea colectiva de cuestionar lo insostenible y a la solución colectiva de los problemas, o nos quedamos haciendo talleres de papel reciclado.*
Santiago Campos

## klasetik at



**26** *Inguruan daukagun paisaia ezagutzeko modurik onena bera begiestera irtetea da. Hemen, mendizale-talde batzuen berri emango dizuegu, baina asko eta asko daude; ziurrenik, horietako baten bat etxetik hurbil daukazue. Izadiaz gozatzea astialdiko jarduerarik atseginenetakoa da.*

## baliabideak eskura

**29** *Egia da paisaia hezkuntzako baliabide handietakoa dela, baina, lekuan bertan aztertzen hasi baino lehen, aurretiazko lana egin behar da ikasgelan, esperientzia ahalik eta onuragarriena izan dadin.*

## 9 bitakora kaiera

***Paisaia gure ingurunearen bilakaeraren adierazpide nagusia da; baina, berari bizkarra emanez bizi ote gara? Ondo ezagutzen dugu inguruan daukagun paisaia?***

## guztiok elkarlanean

### *Urdaibai, paisaiaren aniztasuna zentzumenetan*



**10** *CEIDAk Urdaibaiko paisaiari buruz antolatutako mintegiko esperientzian oinarrituz, Gautegiz–Arteagako Montorre LHIak inguruko paisaia aztertzeko aprobetxatu du bere egoera pribilegiatua.*

## eskolako eko-auditoretza

### *Ikastetxearen inguruko paisaia*



**14** *Gustuko dugu gure ikastetxea dagoen ingurunea? Zer egin genezake ingurune hori aldarazteko? Gure ingurunean egin daitezkeen aldaketa garrantzitsuak proposatzeko, lehendabizi ingurunea bera ondo ezagutu behar dugu.*

## bizkor ibili gero!

### *Begirada ezberdinak*




**24** *Van Gogh ala Gaugin? Lichtenstein ala Warhol? Garai bakoitzak bere artistak eman ditu, eta artista horietako bakoitzak bere estilo propioa landu du; baina, nork hauteman du bere ingurua bizitasun handiagoz?*

## ekin eta ekin

### *Geure zooma*



**15** *Haur Hezkuntzako eskulana.*

### *Asmatu nor naizen*



**16** *Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako asmakizuna.*

### *Paisaia batetik bestera*



**17** *Lehen Hezkuntzako bigarren ziklorako esperimentu txikia.*

### *Paisaia eraldatzen ari gara*



**18** *Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako hausnarketa.*

### *Eraiki dezagun maketa bat*

**20** *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako eskulana.*

### *Paisaiaren kalitatea*

**22** *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklorako eztabaida.*

### *Paisaia eraldatzea*

**23** *Batxilergo eta Heziketa–zikloetarako ariketa.*

*Todos los textos de IHITZA en euskara y castellano en* **www.euskadi.net/ihitza** *web orrian IHITZAko testu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz*

# El paisaje como oportunidad



*Jaume Busquets*

Profesor de Didáctica de las Ciencias Sociales. Codirector del Máster en Intervención y Gestión del Paisaje. Universidad Autónoma de Barcelona.

*Artikulu honen egilearen iritziz, paisaia begiestea inguru fisikoaren eta giza inguruaren arteko harremanak zuzenean aztertzeko aukera da, eta agerian uzten du giza jarduerak ekosistemari dakarzkion ondorioak aintzat hartu behar direla.*

**En los últimos diez años** hemos asistido a una renovación de la noción convencional de paisaje que ha situado este concepto en la actualidad del debate educativo y social. El paisaje ha pasado de ser concebido como la simple imagen estática del territorio o como un escenario bello para la contemplación a ser un termómetro indicativo del estado de salud de las relaciones de la sociedad con el medio ambiente y a considerarse un recurso de interés educativo y social. A este cambio han contribuido diversos factores, entre los que destacan: a) las transformaciones aceleradas de los paisajes tradicionales, b) la crisis ecológica global, c) las aportaciones de la psicología ambiental, y d) la valorización del paisaje como recurso económico y social.

Las transformaciones del paisaje, debidas a la expansión del fenómeno urbano en el territorio y al desarrollo de la capacidad tecnológica de transformación de la naturaleza, no son nuevas, pero en las últimas décadas han alcanzado un ritmo antes desconocido. Y en la mayoría de casos, el resultado de estas transformaciones se



*Paisajes como el de la fotografía podrían denominarse “globalizados”, dado el parecido*

manifiesta en la generación de paisajes estandarizados e impersonales, dando lugar al fenómeno conocido como "banalización del paisaje". La consecuencia de este proceso de banalización es que algunos paisajes empiezan a ser raros, adquieren el valor de bien escaso y son objeto de valorización por parte de la sociedad, que exige su protección como patrimonio social. La crisis ecológica global se manifiesta también en el paisaje. Por una parte, las sociedades perciben la pérdida de la calidad de los paisajes como una señal inequívoca de los desequilibrios que afectan en la actualidad al medio ambiente, de forma que el empobrecimiento de la diversidad en los paisajes constituye la expresión del empobrecimiento de la biodiversidad y del desequilibrio ecológico global. Por otra parte, la pérdida de la diversidad de los paisajes de la Tierra se contempla como un daño irreparable al cual hay que poner remedio cuanto antes.

Las aportaciones de la psicología ambiental y de otras especialidades centradas en el estudio de la percepción ambiental han puesto de manifiesto la importancia de la calidad del entorno y del paisaje como factor de bienestar de las sociedades humanas. Esta constatación presenta una gran importancia, porque pone de manifiesto la conveniencia de dotar a las poblaciones de entornos ambientales y de paisajes de calidad. Plantea la necesidad de que las personas tengamos como escenarios de nues-



*que guardan entre sí las playas turísticas de muchos lugares del mundo.*

tras vidas entornos y paisajes de calidad, mas allá de la necesidad de preservar paisajes de gran interés en lugares alejados de nuestra vida cotidiana a modo de reservas o de museos.

La valorización del paisaje como recurso económico y social es el resultado de la confluencia de dos procesos. Desde el punto de vista económico, algunos paisajes se han convertido en un bien escaso, adquiriendo el valor de patrimonio, y además constituyen un recurso importante para el desarrollo de formas emergentes de turismo y de ocio (turismo verde, agroturismo, turismo cultural, etc.), alternativas a las formas convencionales del turismo de masas. Desde el punto de vista social, el paisaje se manifiesta como un recurso de gran interés para el ocio y para la formación ambiental de las personas en general y, en particular, para la educación de la población en edad escolar. Así pues, diversos factores convergen para hacer del paisaje un concepto de actualidad y de utilidad social. Esta actualidad requiere de una clarificación por parte de los educadores del propio concepto de paisaje. En este sentido, nosotros apostamos por la definición de paisaje formulada por el geógrafo brasileño Milton Santos: *El paisaje constituye la realidad perceptible visualmente desde un cierto punto de observación, y está integrado por elementos naturales y humanos, presenta un carácter dinámico y es el producto de la historia y del trabajo humano*. Y en este punto queremos hacer notar una de las variables que a menudo se pasa por alto: el carácter dinámico y cambiante del paisaje.

A continuación esbozaremos cuatro razones principales por las que, a nuestro parecer, el paisaje constituye una oportunidad excelente para el desarrollo de una escuela ecológica, comprometida con el medio ambiente y con la sociedad. El paisaje constituye un concepto integrador que favorece la comprensión de las relaciones existentes entre el medio físico y el medio humano. La observación atenta y el estudio del paisaje permite descubrir las dependencias y las interacciones entre los elementos del medio natural (suelo, clima, vegetación, aguas...) y los elementos del medio social (poblamiento, aprovechamiento de los recursos naturales, actividades, formas de vida...), y pone en evidencia la necesidad de tener en cuenta los impactos de las acciones humanas en el medio ambiente. El estudio del paisaje en la escuela permite al alumnado el aprendizaje significativo de conceptos propios de las diversas áreas de conocimiento (ciencias naturales, ciencias sociales, literatura, etc.) y posibilita la práctica de diversos procedimientos (observación, registro de información, expresión escrita, expresión gráfica, cálculo, etc.). Por otra parte, el estudio sincrónico y diacrónico de los paisajes permite al alumnado relacionar los conceptos en el tiempo y en el espacio.

La inclusión del paisaje como objeto de estudio en la escuela promueve el arraigo del alumnado a su entorno y el desarrollo de actitudes responsables hacia el mismo. Todos los paisajes, incluso los más despersonalizados, dan lugar a la observación, a la reflexión y a la formulación de hipótesis y propuestas. Ante el paisaje, los educadores deben educar la mirada, deben guiar la atención del alumnado para que descubra por sí mismo toda la riqueza de información que contiene el paisaje, y deben promover el planteamiento de preguntas y de respuestas. Se trata, en definitiva, de contribuir desde la escuela a hacer de los alumnos unos sujetos conscientes y unos agentes responsables del paisaje, con un sentimiento de arraigo al lugar. El paisaje constituye un recurso omnipresente, al alcance de todas las escuelas, se encuentren estas en un medio rural, urbano o rururbano. Debemos insistir en la importancia de abordar, desde la escuela ecológica, el estudio de los paisajes ordinarios, es decir, de los paisajes cotidianos de los alumnos. El propio barrio de la escuela, el parque urbano más próximo, el entorno rural o industrial, pueden ser contemplados y estudiados como paisajes de interés a través del prisma de la curiosidad, del trabajo sistemático y de la reflexión por parte del alumnado.

En definitiva, creemos que el tratamiento y estudio del paisaje en la escuela, desde las edades tempranas y desde una perspectiva interdisciplinaria, puede contribuir de forma relevante al desarrollo de los conocimientos y de la conciencia ecológica y social del alumnado.

### Convocatoria de subvenciones para actividades de educación ambiental en centros de enseñanza no universitaria

Como cada año, los departamentos de Educación, Universidades e Investigación y de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco han publicado la convocatoria de estas subvenciones, cuyo plazo de solicitud expira la primera semana de mayo. Para informarse de las condiciones y requisitos, se puede consultar el Boletín Oficial del País Vasco del 15 de marzo. Lo más cómodo es hacerlo a través de la web del Gobierno Vasco: www.ej-gv.net.



### Ya está en marcha la campaña IBAIALDE 2004

El programa de investigación y acción participativa IBAIALDE presenta este año, como novedad, dos modalidades de participación: en el programa básico se realizará un estudio simplificado del ecosistema fluvial desde el punto de vista lúdico y afectivo, aunque permaneciendo fiel a la base científica que siempre ha caracterizado al programa; en el programa científico se realiza la valorización de una serie de parámetros bióticos y abióticos con el fin de establecer la calidad ambiental del curso fluvial analizado. Este año no se estudiará un tramo de río, sino que se establecerán estaciones concretas de muestreo.
IBAIALDE cuenta con material específico para Educación Infantil y primer ciclo de Educación Primaria. Para todas las personas interesadas y aquellas que vayan a responsabilizarse de los grupos, se hacen salidas formativas. Asimismo, IBAIALDE cuenta con una interesante exposición que desde hace tiempo recorre los centros de enseñanza que la han solicitado.
Otra propuesta para Educación Infantil y primer ciclo de educación Primaria es la representación de títeres ERREKA MARI, en la que se trabajan valores y actitudes en favor del ecosistema fluvial, y que también acude a los centros que lo solicitan.
De todas estas cuestiones os podéis informar en el CEIDA más cercano.

### La Agenda 21 Escolar será el tema central de la Semana Verde 2004

Dentro del programa de actos que con motivo de la Semana Verde se celebrará la primera semana del mes de junio, el encuentro de educación ambiental de este año girará en torno al desarrollo de la Agenda 21 Escolar y su aplicación en los centros de enseñanza de Euskadi.
Además de la comunicación de las distintas experiencias, se formarán grupos de trabajo que abordarán las cuestiones organizativas derivadas de la coordinación de cada centro con otros del mismo municipio para desarrollar la Agenda 21 Escolar.

### El Mapa Geológico del País Vasco ya está disponible en versión digital

El Ente Vasco de la Energía ha realizado la versión digital del Mapa Geológico del País Vasco. La posibilidad de disponer ahora de este mapa en soporte digital supone un avance para los trabajos de reconocimiento, sondeo, etc, que cada vez más se desarrollan sobre plataformas digitales. La cartografía geológica es una herramienta muy importante para el estudio de la viabilidad de obras de infraestructura, proyectos de exploración de recursos del subsuelo y el estudio de los factores medioambientales.

### Publicaciones del Programa Marco Ambiental

Disponibles en formato PDF en:
www.ingurumena.net
www.ihobe.net

#### Indicadores ambientales 2003




Por segundo año consecutivo, el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco ha presentado el informe de Indicadores Ambientales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Este reducido número de indicadores clave muestra una evolución global desfavorable, ya que han aumentado los consumos globales tanto de agua como de energía y materiales. En la misma línea, han crecido la urbanización de suelo agrícola y la emisión de gases de efecto invernadero, así como el uso del vehículo privado y la consiguiente presión ambiental ocasionada por las infraestructuras del transporte.
Algunos indicadores muestran, no obstante, un progreso positivo, como la calidad del agua de los ríos o la eficiencia en el uso de materiales. En lo que respecta al índice de biodiversidad y paisaje, se constata la reducción y fragmentación tanto de los arenales costeros, como de humedales, brezales y matorrales. Además, los usos intensivos del suelo en los valles y en toda la vertiente cantábrica han supuesto también una gran fragmentación y baja conectividad del bosque autóctono.

#### Ecoeficiencia 2003




Disminuir los daños que las diversas actividades humanas causan al ecosistema es el objetivo de lo que se llama *ecoeficiencia*. En este estudio realizado por Iñaki Arto Olaizola, de la Unidad de Economía Ambiental de la UPV/EHU, se analizan los resultados obtenidos en términos de ecoeficien-

cia en algunos de los sectores más representativos tanto de la Comunidad Autónoma del País Vasco como de la Unión Europea, sirviendo de base para situar los esfuerzos y los logros obtenidos.

■ **Criterios de sostenibilidad aplicables al planeamiento urbano**

No cabe duda de que el urbanismo está de moda, pero el urbanismo desde un criterio de sostenibilidad ambiental y social, eso ya no está tan de moda. Bakeaz, en colaboración con Isabel Velázquez, ha elaborado este estudio que pretende avanzar a los equipos responsables del planeamiento urbano una serie de criterios sobre los que fundamentar la necesaria reflexión a aplicar en todas las fases de planificación y gestión urbana. Esta forma de plantear el urbanismo integra aspectos ambientales, económicos y sociales junto con los aspectos más tradicionales del planeamiento urbano, con el fin de mejorar el bienestar y la calidad de vida de la ciudadanía.

■ **Energía y medio ambiente 2003**




Dentro de la batería de publicaciones que, enmarcadas en la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible, tratan de dar cuerpo teórico al difícil reto de transformar los modos de producción y consumo de la sociedad en favor del desarrollo sostenible, este documento trata el que quizá sea el tema ambiental de más difícil abordaje: la energía. Elaborado por el Ente Vasco de la Energía, constituye, además, el primer estudio monográfico sobre indicadores ambientales relacionados con la energía.

### Reunión Europea sobre Consumo y Producción Sostenibles

La Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE organiza este importante evento, que se celebrará del 12 al 14 de mayo próximos en el Palacio Euskalduna de Bilbao. Esta reunión viene precedida de una serie de encuentros sobre producción limpia que se iniciaron el año 1994 y se han venido produciendo en lugares como Rotterdam, Oslo, Lisboa o Budapest. En ella se citan responsables de más de 35 gobiernos nacionales y regionales, universidades, ONGs, corporaciones e instituciones internacionales, con la finalidad de intercambiar experiencias y conocimientos sobre la minimización de la contaminación.

**43 CENTROS EDUCATIVOS SE COMPROMETEN A EDUCAR PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE** La primera fase de implantación de la Agenda 21 Escolar ha supuesto un éxito de participación. Como se puede apreciar en el mapa que ofrecemos en nuestra contraportada, la distribución de los centros implicados es amplia. En la mayoría de los municipios, las personas encargadas de coordinar la Agenda 21 Escolar han participado en cursos de formación, y también se han impartido cursos a los claustros que lo han solicitado. Los centros están recibiendo el apoyo del personal técnico asignado por los municipios y del CEIDA, tanto para el diseño y elaboración de su plan de acción, como para la organización de las actividades y del Foro de Participación Escolar.

Los centros que se quieran sumar a la Agenda 21 Escolar pueden solicitar las subvenciones para el desarrollo de programas de educación ambiental convocadas conjuntamente por los Departamentos de Educación y de Medio Ambiente, especialmente aquellos que quieran solicitar horas de liberación para coordinar el proyecto.

**2.000 ESCOLARES DE DEBAGOIENA PARTICIPAN EN UNA CAMPAÑA SOBRE LA REDUCCIÓN DE RESIDUOS** La Mancomunidad de Debagoiena y Udalako Ingurugiro Eskola han puesto en marcha la campaña *Zaborra murriztu, mundua berpiztu,* que se prolongará hasta el mes de mayo. Esta actividad forma parte del compromiso de los centros de enseñanza e instituciones de la zona para implantar la Agenda 21 Escolar.



Según los promotores de la campaña, el objetivo es concienciar al alumnado de enseñanza primaria y secundaria obligatoria sobre la importancia de reducir el volumen de residuos que generamos. Entre las iniciativas que se desarrollarán, destacan los concursos de murales, que tendrán diferentes contenidos en función de cada nivel. Así, para 5º y 6º de Educación Primaria se harán talleres más prácticos, con juegos y pasatiempos. Para Educación Secundaria Obligatoria se han preparado vídeos informativos y talleres sobre consumo responsable y la influencia de la publicidad.

**LA AGRICULTURA ECOLÓGICA ESTARÁ PRESENTE EN LOS MENÚS ESCOLARES** La asociación de Iparraldea Biharko Lurraren Elkartea, en colaboración con Ekonekazaritza y Bio Lur Nafarroa, está trabajando para introducir menús ecológicos en los comedores escolares. La iniciativa se enmarca dentro del programa europeo Interreg III A y ha sido puesta en marcha con éxito en diversos departamentos del estado francés. En Dordogne, por ejemplo, el alumnado lleva tres años comiendo productos ecológicos. Los precios del menú ecológico son muy similares a los de los menús habituales, encareciéndose tan sólo 0,15 euros por persona en los programas franceses. Es de esperar que el ejemplo cunda en Hego Euskal Herria.

## zenbat buru hainbat aburu

*Toki arazoak direla eta, IHITZAk beretzat gordetzen du jasotzen dituen gutunak osorik ez argitaratzeko eskubidea. Makinaz idatziriko 30 lerrotik beherako testuak bidaltzea erregutzen dizuegu. Gutunetan egilearen sinadura, beraren datuak eta harremanetarako telefono zenbaki bat jarri behar dira. Ez zaio inori egileen telefono zenbakirik ez helbiderik emango.*




*IHITZA se reserva, por motivos de espacio, el derecho de no publicar íntegramente las cartas que se reciban. Se recomienda que no excedan las 30 líneas mecanografiadas. Las cartas deben estar firmadas e incluir los datos de quien escribe y un teléfono de contacto. No se facilitarán teléfonos ni direcciones de los/as autores/as.*

### 2º Congreso Nacional sobre Medio Ambiente para niños

Del 29 de septiembre al 3 de octubre del 2003 un grupo de nueve alumnos/as del colegio público Serantes Ikastetxea participó en el 2º Congreso Nacional sobre Medio Ambiente para niños, celebrado en Santiago de Compostela. Hodeiertz, Asier Fandiño, Gontzal, Garbiñe, Asier Cabezas, Eli, Urtzaro, Xiker y Mikel, de 6º curso, junto con el profesor J. Manuel Echevarría, presentamos la ponencia *La Patrulla Verde*, experiencia desarrollada en nuestro centro y seleccionada para el congreso. Además de en las ponencias, participamos en tres talleres: uno, sobre paisaje gallego; otro, sobre conservación; y un tercero, sobre biodiversidad. Así mismo, se organizaron dos salidas: una, al Parque Nacional de las Islas Atlánticas (islas Cíes); y otra, para conocer Santiago de Compostela, a través de un juego de pistas.

A su vuelta, los alumnos y alumnas asistentes hicieron las siguientes valoraciones: el viaje fue un poco pesado. Mucho tiempo en tren (once horas y media), pero lo pasamos bien en general. Sobre todo a la vuelta, despidiendo a los nuevos amigos y amigas.

El hotel, fantástico. Muy bien todo: la limpieza, la TV, la organización...; al menor problema, lo solucionaron enseguida. Lo único malo fue la comida. Esa es nuestra propuesta: mejorar la comida, pensando en los niños y niñas. En cuanto a la organización y las azafatas: se preocuparon mucho por nosotros/as. Han sido muy majos y siempre nos han ayudado. La organización muy bien: los autobuses, las salidas y llegadas, en el comedor…



*La representación de Serantes Ikastetxea al completo, momentos después de intervenir en el Congreso Nacional de Medio Ambiente para Niños.*



*Además de las ponencias, hubo talleres y salidas por Santiago y las islas Cíes.*

Sobre las ponencias, algunas fueron pesadas y aburridas, sobre todo porque no se leían bien o no se usaba el micrófono. Algunas ponencias se hicieron en gallego, por lo que no las entendimos. A preguntas del profesor sobre el conocimiento de las ponencias, resultó que se acordaban de unas siete. Sobre su propia exposición, les gustó, aunque pasaron nervios. Valoran que lo hicieron bastante bien y que la suya fue de las más bonitas. Piensan que hay que hacerlas más entretenidas, o exponer menos, porque en algunas se aburrían y hasta se durmieron.

Sobre los talleres: el más divertido fue el *manual*, en el que pintaron y se movieron un poco. Los otros dos bien, pero pesados, porque eran de hablar mucho y de estar siempre sentados.

Las excursiones les gustaron mucho y estuvieron muy bien organizadas. Cuando les pregunté, descubrí que se quedaron con conceptos claros: ecosistema de dunas… En Santiago, muy bien, y divertido el juego. Con el grupo de mayores con los que hicieron el juego, muy bien.

Como conclusión, sentían agradecimiento por los obsequios recibidos, y hay que decir que les gustó mucho por la sorpresa que fue y por el contenido. Gracias. Lo mejor: el viaje en sí, porque fue como un premio; la ponencia ante tanta gente; viajar en catamarán; hacer muchos amigos y amigas; la fiesta final y la discoteca.

J.M. ECHEVARRÍA
SERANTES IKASTETXEA

# bitakora kaiera




## Zer mehatxu jasaten ditu Europako landa-paisaiak?

Gizarte-interesa izan lezaketen eremuetako
**larre eta belardietako inpaktu nagusiak**




Gizarte-interesa izan lezaketen eremuetako
**mendialdeetako inpaktu nagusiak**




Eskuineko zenbakiak, gizarte-interesa izan lezaketen eremuetarik herrialde bakoitzean aztertu direnen kopurua adierazten du, bederatzi herrialdek egin duten NATURA 2000 txostenean azaltzen denaren arabera.

**Legenda**

- Urbanizazioa eta garraio-azpiegiturak.
- Kutsadura.
- Prozesu naturalak.
- Mea-erauzketa.
- Aisia eta turismoa.
- Balantze hidrikoaren aldaketa.
- Ehiza eta fruitu-bilketa.
- Nekazaritza eta basogintza.

**Garraio-azpiegiturekin eguneko okupatutako batez besteko lur-eremua.** EB-15, 1990-1998. (Hektareak eguneko)
Guztira: 30.000




**Larredi-azalera iraunkorra**
Milioi hektareakotan




**Iturria:** Europako Ingurumen Agentziaren ingurumen-adierazleak. www.eea.eu.int

# Urdaibai, paisaiaren aniztasuna zentzumenetan

***Urdaibaiko Paisaiari Buruzko Mintegian landutakoa izaten du xede Jose Luis Bardonek, Arteagako Montorre LHI-ko zuzendariak, Biosfera Erreserbara ikasleekin egiten dituen ibilaldiak eratzerakoan. Udazken arrats eguzkitsuan irten zen ikasleak lagun, zuhaitzak gorrizkatuz zihoazela, paduretako altxor ezezagunen bila. Unescok izendatutako paradisuak erakusten zuen paisaia aniztasuna hurbildik ezagutzeko parada gozagarria.***



*Irteera egin aurretik gelan prestatu beharra dago, nondik norakoak zehazteko.*

**Zentzumenen bidezko** pertzepzioan oinarritutako lana egiteko aukera ematen du paisaiak. CEIDA-k koordinatuta orain hiruzpalau urte antolatutako Urdaibaiko Paisaiari Buruzko Mintegian paisaia ez dela soilik geografiaren deskribapenetara mugatzen zehaztu zuten: gizakiaren eraginen ondorioak edota zentzumenen erabilerak berebiziko garrantzia dute, paisaiak ikasleei hurbiltzerakoan.

Takeshi Kitano zinemagile japoniarraren Dolls izeneko azken filmean, Asiako irlaren paisaien joan–etorriak gizakien sentimenduak azalarazteko metafora bihurtzen dira. Gerizondoen loraldiak udaberriaren eta itxaropenaren sinboloak diren moduan, gizakiak paisaiarengan izan duen eragina garapenaren errealitate gordina litzateke. Zoritxarrez, nahiko ezagunak dira paisaiaren desitxuraketa dakarten aldaketak. Urdaibaiko Biosfera Erreserban ez dira gerizondoak sobera, baina paisaia aniztasuna aberatsa da.

Jose Luis Bardonek, Arteagako Montorre Herri Ikastetxe unitarioko zuzendariak, behin eta berriz azpimarratzen die ideia hori ikasleei, prestatutako irteerari ekin baino lehen; udazkeneko arratsalde eguzkitsua bezain argia da. Urdaibaiko paduraren ezaugarriak azalduko dizkie Lehen Hezkuntzako sei ikasleei.

## Kolore-eztanda paduran

Gautegiz-Arteagako errepidea zeharkatu ostean —ikastetxe ondoan dauden laranjondoak aniztasunaren seinale dira—, Gorka, Irati, Jasone, Oihana, Unai eta Irune (9-11 urte bitarteko neska-mutilak) aintzinako marea-errotarantz abiatzen dira, irtenaldiko kuadernoak eta boligrafoak eskuetan, Montijoko Eugeniaren Arteagako Gaztelu zaharberrituaren begiradapean.



*Ikasturte hasieran, Ereño Zaharrera igo ginen gurasoen laguntzaz, baina gaurkoan irteera laburtxoagoa izango da, itsasadarra aztertuko dugu,* azaltzen du Jose Luis Bardonek, Jose bere ikasleentzat. Bidea hasi eta berehala hasten dira galdera–erantzunak ikasleen eta irakaslearen artean. Bardonek umeen arreta erakarriko du, bere galdera–sortarekin; egun eguzkitsuaren epeltasunak, Urdaibaiko koloreekin nahastuz, bati baino gehiagori arreta galaraz liezaioke: hosto berdeak, gorrixkak, horiak tartekatu egiten dira Ogoñoraino heltzen den kantauriar artadian.



Montijoko Erreginaren Gazteluaren aurretik igarotzen, itsasadarreko marea-errotara bidean.

Baina Bardonen lana parajeak deskribatzea denez, lanari ekiten dio haize epelak aurpegia laztantzen diolarik. Landutako Lehen Hezkuntzako Unitate Didaktikoetan berebiziko garrantzia dute ahozko deskribapenek eta horretan maisu da Bardon. *Ibilbide hau oso lagungarria da paisaia nola aldatzen den ikusteko*, azaltzen die ikasleei, Ozolloko baserrietarako bidexka baten lehen geldiunea egin aurretik. *Orain ehun urte guztiz ezberdina zen, marea-errota da aldaketon adierazle argiena. Antzina garia izango zan padurotan, laboreak*. Paduretako soroak aldatu diren modura, animaliek ere gizakion eragina nabaritu izan dute. Padurok eperrez gainezka omen zeuden, orain hirurogei bat urte. Gaur egun ez da batere ageri.

*Auzolanaren garrantzia ere azpimarratzen diegu ikasleei, adibidez San Lorentzoko baseliza konpondu dute auzotarren artean eta harrizko mahaian inguruneko mapa agertzen da.*

Marea-errotako ibilbidea aurrera doala, umeek kuadernoetan idazten dute. *Koadernoan gaurko egunaren data idazten dugu lehenengo*, argitzen du Oihanak. Josek mahatsa ikusi du paduran, landaketa berria da eta kuadernoan jaso beharra dago. Koloreen eztanda lagungarri gertatzen zaio Joseri. *Non ikusten duzue berdea?*, galdetzen die ikasleei. *Berde iluna intsinis pinuan, berde grisa artadian*, erantzuten dute. *Bai eta beste*



Arteagako herria ere aztergai dute ikasleek.



Gelako leihotik begira, azken azalpenak.



San Lorentzoko baselizako iragarki-mahaiaren aurrean, ingurunea hobeto ezagutzen.



Gautegiz-Arteagaren ikuspegia, Lagarako bidegurutzetik. Atzealdean padura ikus daiteke.



*Behaketa toki egokienak aukeratzen ditu irakasleak, paisaia mota ezberdinak ikasleei azaltzeko.*

*kolore batzuk ikus daitezke. Zeintzuk?.* —*Gorrixka!* erantzute dute guztiek aho batez, udazken betearen metafora adierazgarriena, haritzetako ostoak erori baino lehen dakusaten gorrixka eternala. Azkenik, itsasadarrak kristalezko ispilua erakusten du; marea-errota hondatuaren harriak agertzen dira, iraganaren seinale. Marea gora dator eta ur gatzatuak ur gezarekin egiten du bat. Ikasleek paisaia agurtzen dute, berriro bueltatuko direlako itxaropenean. Idatzi dituzten notak ez dira betirako; Ogoñotik egunero agertzen den eguzkia ez da eguzki bera; eta agian itzultzen direnerako, ez dira ume berberak izango.

## Urdaibaiko paisaiaren azterketari buruzko mintegia

Urdaibaiko CEIDAk koordinaturik hiru ikasturteetan zehar garatutako mintegi honetan, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleek hartu zuten parte. Egindako lanaren ondorioz, paisaia derrigorrezko hezkuntzako ziklo guztietan lantzeko segida didaktikoa prestatu zen. Ziklo bakoitzerako, irteera batean oinarritutako unitate didaktiko bat aurkezten da. Proposatzen diren behatoki guztiak Urdaibaikoak badira ere, lan-proposamena eta fitxak edonon erabil daitezke.




*Urdaibaiko Paisaiari buruzko Mintegian landu ziren bost behatokien eskema.*







***Marea-errotarako ibilbidean anitz dira arkeologia eta historia aztarnak: historia, hezkuntza edo ekonomia irakasteko eduki aproposenak.***



**Mª Paz Txertudi**
Mungiako Legarda Alde Herri Ikastetxeko irakaslea.

## *"Paisaia ez da bakarrik geografia; gizakiaren eragina ikertu genuen: historia, kultura"*

Urdaibaiko paisaiari buruzko mintegien garapenean hartu zuen parte Mari Paz Txertudik, 15 irakasleko taldearen partaide izanik. Jaume Busquets Kataluniako Unibertsitateko irakaslearen laguntza izan zuten.

**Nola prestatu zenuten mintegirako materiala?**

Zikloka prestatu behar izan genuen. Ziklo bakoitzari zein material egokitu ahal zaion aztertu behar izan genuen. Fitxak egin genituen, jokoak eta abar. Kontuan izan genuen paisaia ez dela bakarrik geografia; gizakiaren eragina ikertu behar genuen: historia, kultura...

**Zeintzuk izan ziren ikasleekin geletan landutako prozedurak?**

Zentzumenak erabili paisaia ikusi, ikutu, entzun, usaindu eta sentitu dezaten, lehendabizi. Paisaia ezberdinak identifikatu, konparatu eta sailkatu. Horrez gainera, hipotesiak mahai gainera eraman eta baieztatu paisaiako elementuen kokapenari buruz. Beste alde batetik, paisaiak jasandako eraginak aztertu eta konponbideak bilatu. Azkenik, iritziak eman, beste partaideenak entzun eta eztabaidatu. Ikasleek ardurak har ditzatela. Paisaia oso konplexua da eta alde biak, fisikoa eta soziala, kontuan izan behar dira.

**Eguneroko lanerako zer atera duzu baliagarri, gelan erabiltzeko moduan?**

Niretzat atera dudan fruitua oso emankorra izan da. Adibidez, elkar trukatzeak egiten ditugu Gernikako La Merced ikastetxearekin, eta Allende-Salazarrekin, urtero. Horrezaz gainera, Gernika aldea eta Mungiako inguruak oso antzekoak dira, historiari begiratuta: nekazaritza inguruak, hain antzekoak izanda, bisitak antolatzen ditugu.





*Langraitzeko mendien ikuspegia dute aztergai Jose Miguel Barandiaran Herri Ikastetxeko ikasleek: Gasteizko mendikatearen gailurrak.*

# Beste esperientzia interesgarri batzuk

### Azazeta aztergai, Dulantzin

Urtero, udaberriarekin batera, Dulantzi L.H.I-ko 5. mailako ikasleak Arabako lautadatik Azazetako mendilerrora joaten dira. San Vitorreko baselizako bidean, kutsadura aztertu; lur ebaketa, lore, zuhaitz, enbor usteldu eta animaliei behatu; eta mapak irakurri egiten dituzte. Paisaia lantzeko bi ariketa dauzkate: bi puntu ezberdinetatik ateratako argazki batzuekin egindako oinarrizko marrazkia koloreztatu eta osatu egiten dute ikasleek paisaiako elementu garrantzitsuenak nabarmenduz. Bestalde, gidoi baten laguntzaz paisaia deskribatzen dute; horretarako, ikusmenaz aparte beste zentzumenekin antzeman dezaketen guztia erabiltzen dute. Oso deskribapen osatua lortzen dute, eta gero klasean konparaketak egiteko erabiliko dute. Beren eskualdea hobeto ezagutzeko eta gizakiak duen eragina ulertzeko aukera dute ikasleek.

### Langraitzetik, basoaetara

Langraitzeko Jose Miguel de Barandiaran Herri Ikastetxean, inguruneko mendiak aztertzen dituzte geletatik daukaten ikuspegiari esker: Gasteizko mendilerroko gailurren izenak ikasiz gainera, basoen kolore aldaketari erreparatzen diote. Ikasturtean zehar, irtenaldiak egiten dituzte (Gorbeia, Anboto, Aizkorri...). Iparrorratza eta mapaz baliatuta, ikasleek mendiok identifikatu behar dituzte, gelan mapan kokatu eta gero. 3. Zikloan bi irtenaldi egiten dituzte: Gasteizko mendilerrora eta Badaiako gailur altuenera, *Los Oteros* mendira. Gainera, *El Torco* harrobiaren aldaketaren jarraipena egin dute.

# Ikastetxearen inguruko paisaia



***Gure ikastetxea, gure auzoa, gure herria... paisaiaren osagai bilakatu dira eta, gizakion eraginez, etengabe eraldatzen ari dira. Egun begiztatzen dugun paisaiak (gure ondare preziatua) sentsazio ezberdinak eta kontrajarriak sortarazten dizkigu. Zer egin dugu txarto? Zer ondo? Zer hobetu dezakegu?***

**Paisaia baten** osagai anitzak (abiotikoak, biotikoak, antropikoak) elkarrekin erlazionaturik daude eta elkarri eragiten diote; lotura hori osotasunean baloratzen dugu zenbait ikuspuntutatik (oreka, biodibertsitatea, estetika…). Gizakiaren ezarpenak lehen aldaketak ekarri zituen; euren eraginak erlazio berriak sortu ez ezik, nortasun eta balore berria ere eman dizkio paisaiari. Eko-auditoretza honetan gure ikastetxeak osatzen duen paisaiaren egoera eta bilakaera aztertu nahi dugu: orain arte izandako eraldaketa, eragileak eta ondorioak; etorkizunerako egitasmoak. Gure esku dauden hobekuntza proposamenak eta ekintzak gauzatzea bultzatu nahi dugu.

## 1. urratsa: batzordea sortu

Aurreko ekitaldietan bezala, batzordeak eratu beharko ditu eko-auditoretza honen helburuak, edukiak eta jarduteko plana. Ikastetxearen ingurua eta aurreko sasoiak lantzeko, harremanetan jarriko gara beste zenbait eragilerekin: mantentze zerbitzuetako langileekin, udal teknikariekin, auzo elkarteekin eta gaiarekin zerikusia duten talde, aditu eta enpresekin.

## 2. urratsa: datu bilketa eta maketa

Ikastetxe eta auzoarekin batera osatzen dugun paisaiaren behaketa eta datu bilketa egingo dugu: osagaiak, aldaketak, eragileak, ondorioak, iritziak, proposamenak… (Azterketa hau bideratzeko, ideia ugari aurki dezakegu IHITZA ale honetako orrialdeetan). Paisaia horren irudi osoa hobeto adierazteko, maketa bat egitea proposatzen dugu; *Eraiki dezagun maketa bat* izeneko fitxan (20-21. orrietan) maketa bat pausoz pauso nola egin aurkituko duzue.

## 3. urratsa: lehengo eta gaurko paisaiak konparatu

- Eraldaketarik izan al da azken mendeetan? Zertan antzeman dakioke?
- Nolakoa izan zitekeen paisaia gizakiok ezarri baino lehen? Zer-nolako osagaiak gehitu/kendu beharko genituzke?
- Nolakoa, lehen ezarkuntzen ostean?
- Nolakoa, ikastetxea eraiki baino lehen?
- Nolakoa guraso, amama edo aititen garaian?
- Nolakoa, gaur egun?

Taldeka, aurreko guztiaz hausnartu ondoren, konpara ditzagun sasoi bakoitzeko osagaiak: izandako aldaketekin galdu eta irabazi dena. Aukeratutako aldearen antzinako argazkiak lortzea aholkatzen dizuegu, argiago ikus ditzazuen aldaketak (kontuan har itzazue iritzi desberdinak: estetikoak, bizitza-kalitatekoak, ekonomikoak…).

## 4. urratsa: proposamenak

Eskatu talde bakoitzari etorkizunerako proposamenak egin ditzala: zer zuzendu beharko litzateke?, zer mantendu?, zer hobetu? Gero, bildu proposamenok, bideragarritasuna baloratu eta ezagutzera eman. Galdetegi bat egin daiteke lehentasunak finkatzeko. Lehentasunezko proposamenak gauzatu edo behar den lekuan aurkeztu eta bultzatu egingo ditugu; gero ebaluaziorako plangintza egingo dugu: adierazleak, epeak…



# Geure zooma

**HELBURUAK**

- Unibertsoko osotasunaz ohartzea.
- Paisaia batzuen arteko ezberdintasunak eta ezaugarriak ezagutzea.
- Klaseko album bat garatzea guztion collage edo marrazkiekin.

**MATERIALAK**

- Zoom liburua (iturria ikusi).
- Soberan dauzkagun kartulinak edo paperak.
- Margoak, errotuladoreak, kola, aerofix.
- Aldizkarietako argazkiak.

**Lehendabizikoz**, aipaturiko *Zoom* liburua talde osoan erakutsi, berarekin jolastu, aztertu era diferenteetan... Gero *Geure zooma* albuma egitea proposatuko diegu. Proiektua korruan adierazitakoan, denon artean talde–lana banatuko da (binaka edo hirunaka).

Lehenengo taldeak irudi baten detaile txiki bat aukeratuko du; ikasgela, jantoki edo patiokoa izan daiteke.

Aukeratu ostean, margotzen edo collage egiten saiatuko dira.

Bigarren taldeak detaile hori ikusita, inguru edo leku handiago batean kokatzea erabakiko du; esaterako, borragoma bat autobusean doan neska baten eskuan... Ostean marrazkia egingo dute. Azkenean, talde guztien lanak jaso, plastifikatu eta *Geure zoom* albuma izango dugu.



## Iradokizuna

Txandaka albuma etxera eramatea ideia ona izan liteke; era horretan ikasleek gurasoei zer-nolako lana egin duten adierazi ahal izango diete.



**Iturria**

BANYAI, Istvan. **Zoom**. Fondo de Cultura Económica. México, 1995.

# Asmatu nor naizen

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- Ingurune natural eta sozialaren ezaguera.
- Plastika.

**HELBURUA**

- Urtaroen aldaketek paisaiari dakarzkioten ezaugarriei antzematea.

## Ariketaren prozedura

**Lehenengoz**, hurrengo asmakizunak esango dizkiegu. Nor naiz ni?:

1. Nire haize gogorraz zuhaitzetatik hostoak botatzen ditut.
2. Nik hotza ekartzen dut, eta askotan baita elurra ere.
3. Nire egun beroetan hondartzara joan eta itsasoan bainatzen zara.
4. Nik lorategiak lorez eta zuhaitzak hostoz betetzen ditut.



Asmakizuna igarri ondoren, fotokopiagailuan handituta eman ahal zaizkie fitxa honetako irudiak, goiko elementuak ebaki eta beheko marrazkian itsasteko. Horren ostean, dena margotu eta bururatzen zaizkien beste elementu batzuk erants ditzakete.







# Paisaia batetik bestera

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- Ingurune natural eta sozialaren ezaguera.
- Hizkuntza.

**HELBURUAK**

- Paisaia osatzen duten elementuak ezagutzea.
- Elementu horien arteko eraginaz jabetzea.

**Ekintza honetan**, paisaia osatzen duten elementuak ezagutzeko aukera izango duzue. Paisaia batetik bestera elementu horien arteko harremana nola aldatzen den ere jabetu ahal izango zarete.

## Prozedura:

Aukera itzazue erabat ezberdinak diren bi paisaia (adibidez, hiriko kale bat eta parkea; mendia eta herria; itsasaldea eta barrualdea…). Aipatu dituzuen lekuetan izan ostean, bete ondorengo taula (kontuan hartuz ez dela erraza zenbait sentsazio era zehatz batez deskribatzea, hobe izango duzue modu abstraktu batez egitea).

| | | |  Ikusten duzuna |  Usaintzen duzuna |  Entzuten duzuna |  Sentitzen duzuna |  Iradokitzen dizuna |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ERLIEBEA | Mendiak, ibaiak, haranak, lautadak, itsasoa… |  | | | | | |
| KLIMA (EGURALDIA) | Eguzkia, hodeiak, haizea, euria, tenperatura, hezetasuna… |  | | | | | |
| FLORA/ FAUNA | Animaliak, goroldioa, landareak, belarra, zuhaitzak, onddoak… |  | | | | | |
| GIZAKIAREN EKINTZA | Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, industria, eraikuntza, merkataritza, garraioak… |  | | | | | |

Orain, hurrengo galderei erantzun eta atera itzazue ondorioak:

- Zein da paisaia bakoitzean elementu nabarmenena?
- Ikusmenaz gain, zer gehiago erabili duzu paisaiari behatzeko?
- Ezer falta al da paisaiaren batean? Eta soberan ba al dago ezer?




**Iturria:**
BASAURIKO INGURUGIRO MINTEGIA. **Basauri goitik begira**. Basauriko PAT - COP.

# Paisaia eraldatzen ari gara

## HELBURUAK

- Gure eguneroko paisaia osatzen dituzten aro ezberdinetako elementuak identifikatzea.
- Paisaia horrek sasoi diferenteetan zehar izan duen nortasunaz jabetzea eta gure lehengo eta gaurko eraginaz eztabaidatzea.

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.
- PLASTIKA.

**LEHENENGO ETA BEHIN**, orrialde batean ikastetxetik edo inguruko ikustoki batetik ikusten den paisaiaren erliebe-lerro nagusiak jasoko ditugu: ortzemuga, mendiak, haranak, ibaiak…

1. Zirriborro horren kopiak egin, ikasle bakoitzak berea eraman dezan.
   Zirriborro *biluzi* hori era desberdinetan jantzi edo eraldatu egin da denboran zehar; naturaren eraginez batzuetan, baina gizakion eraginez gehienetan: basoak, hodeiak, animaliak, errekak, errepideak, harrobiak, herriak…
   Jar dezagun martxan gure irudimena eta osa dezagun orri bakoitzean marraz eta kolorez arlo bati edo besteari dagokion *argazkia*.
2. Horretarako, aukeratutako ikustokira joango gara guztiok; lau taldetan jarririk, aroak banatuko ditugu. Aroak hurrengo hauek izan daitezke (edo aurretik gelan aukeratutako beste batzuk):
   - **a** taldekoek: gizakia azaldu baino lehenagokoa.
   - **b** taldekoek: nekazaritzaren hasiera, lehen etxolak edo herrixken jaiotzea.
   - **c** taldekoek: industria, errepide, trenbideak eta *asfaltoaren* garaia.
   - **d** taldekoek: etorkizunerako nahiko genukeena.
3. Gelan bildu eta hausnarketari ekingo diogu:
   - Zertan dira berdin edo ezberdinak gure *argazkia* eta egun aurrean dugun paisaia?
   - Zer irabazi edo galdu da batetik bestera?
   - Zer proposatuko genuke? Nola bidera ditzakegu geure proposamenak?



*Zirriborroa, nahi dugun bezain zabal izan daiteke.*



***A taldea**. Gizakia azaldu baino lehenagoko landaretzari zein faunari buruzko dokumentazioa bila dezakezue.*



***B taldea.** Historiaurreko ikuspegi honetan, geure subkontzientearen zine eta telebista irudimenaz ohar gaitezke.*



***C taldea.** Asfalto eta komunikabideen garaia. Nahiz eta itxuraz aldatu gabeko paisaia bat aukeratu, gizakiaren aztarna beti egoten da atzean.*



***D taldea.** Etorkizunari buruzko ikusmoldeak eztabaida handiagoa piz dezake. Etorkizuneko paisaia oraingo erabakien menpe dago.*

# Eraiki dezagun maketa bat

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- Matematika.
- Natur zientziak.
- Gizarte zientziak.
- Teknologia.

**HELBURUAK**

- Bi dimentsiotan adierazitako gune bat hiru dimentsiotan berreraikitzea.
- Sestra-kurbak interpretatzen jakitea.

**MATERIALAK**

- Berreraiki nahi dugun gunearen fotokopia handiagotuak.
- Kortxo edo kartoizko xaflak.
- Kola.
- Koloreetako margoak.
- Artaziak eta *kutter* bat.
- Kartulinak.

## Pausoz pauso:



**1.** Berreraiki gura dugun gunearen fotokopia handitua itsatsiko dugu kartulina batean.



**2.** Oinarria margotu behar dugu; baina hori egin aurretik, zenbait ezaugarri erabaki behar dira: itsasoa, ibaia, mendiak... zein koloretan margotuko dituzue? Eta, zero eta ehun arteko tartea? Normalean, zenbat eta gorago joan, orduan eta kolore ilunagoak erabili ohi dira.





Oinarria ehun metroko kotaraino margotuko dugu soilik, gainontzekoak maketaren hurrengo solairuaren azpian geratuko dira eta.



**3.** Beste fotokopia batean ehun metroko kotatik berrehunekora bitarteko tartea margotu eta gero, kartulina baten gainean itsatsiko dugu; jarraian ehun metroko kotatik ebakiko dugu.

Ondoren kutter batez ehun metroko kotari dagokion kortxoa ebaki. Gauza bera egin beharko dugu berrehun, hirurehun... eta abarreko kotekin. Amaieran itzelezko maketa lortuko dugu. Oinarrizko egitura hau kontuan hartuz, eskaiolazko estaldura baten bidez, borobildu eta buka dezakegu. Horretarako, egurrezko oinarri batean (metalezko oihal bat iltzatzeko adinako lodiera duena) itsatsiko dugu maketa. Oihala maketako gainazalera egokitzeko, ebaki eta burdin hariz josi. Gero, eskaiolaz bustiriko oihala ezarri. Lehortutakoan, margotu eta nahi beste detaile gehi diezazkiokegu.



**Iturria:**
**50 propuestas para estudiar el bosque desde un punto de vista medioambiental/ 50 proposamen basoa ingurugiro ikuspegitik lantzeko.** Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa. Bilbao, 1996.

# Paisaiaren kalitatea

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- Natur zientziak.
- Gizarte zientziak.
- Hizkuntza.

## HELBURUAK

- Ingurua ezagutzea eta gizarteak berarekin eratutako elkarrekintzak identifikatzea.
- Ingurumen-arazoentzako irtenbideak proposatzeko gaitasuna garatzea.

**Paisaia osatzen** duten elementuak asko dira. Horiek guztiak ulertu ahal izateko, sailka antolatzea komeni da: erliebea, landaredia, ura... Behaketaren bidez, paisaiaren kalitateari buruzko zeure iritzia garatu ahal izango duzu. Taula honetan, aukeratu aztertu nahi duzun paisaiaren alderdi bakoitzarekin bat datozen ezaugarriak. Paisaiaren kalitatea kalifikatzeko, hautatutako laukietan ageri diren puntu kopuruak batu egin behar dituzu. Era berean, giza jardueren eraginaren inguruko ondorioak ateratzeko proposatzen dizkizuegun irizpideak aztertzea eta baloratzea ere eskatzen dizuegu.

| Paisaiaren kalitatea | | | | | | | Puntuak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Erliebea | Osagai mota asko (labarrak, haranak...) dituen erliebe menditsua | 3 | Osagai mota gutxi dituen erliebe menditsua | 2 | Uniformea eta osagai nabarmenik (ordokia...) gabekoa | 1 | |
| Landaredia | Bertoko basoak (haritzak, pagoak...) | 4 | Gizakiak landatutako landaredi-esparruak (pinuak...) | 3 | Landare kolonizatzaileen nagusitasuna (laharrak, ote zuriak...); oihaneztatu gabea | 1 | |
| Ura | Garrantzi handiko osagaia | 3 | Ez da osagai nagusietakoa | 2 | Ez da ageri | 0 | |
| Kolorea | Kolore-konbinazio ugari eta biziak | 2 | Nolabaiteko kolore aniztasuna eta kontrastea | 1 | Aniztasun urria, kolore motelak | 0 | |
| Bakantasuna | Oso paisaia berezia, bakana | 4 | Paisaia berezia, baina Euskal Herriko beste batzuen antzekoa | 3 | Arrunta, Euskal Herrian ohikoa | 1 | |
| Kutsadura-maila | Txikia | 4 | Ertaina | 0 | Handia | -4 | |
| Komunikazio-bideak | Ez dira inon ageri | 4 | Ingurumen-inpaktu urriko bideak ageri dira (bide txikiak, bidezidorrak...) | 2 | Komunikazio-bide ugari eta mota askotakoak | -4 | |
| Biztanleguneak | Ez dago horrelakorik, edo paisaian integraturiko elementuak (etxeak...) ageri dira | 4 | Argi bereizten diren eta urbanizazio zehatza duten herriak | 2 | Masifikazio-maila handia, herrien arteko muga zehatzik gabe | -4 | |

Kalitatea: **HANDIA** = 28 - 15; **ERTAINA** = 15 - 3; **TXIKIA** < 3

Egin aztertu duzun paisaiari dagozkion puntuen batura. Horren arabera, zein da aztertutako paisaiaren kalitatea?

- Zer deritzezu taulan proposatutako irizpideei? Irizpide horietan, zelako pisua dute giza jardueren ondorioek?
- Zer egin daiteke ondorio horiek leuntzeko edo beste era batera bideratzeko?

**Iturria:** "Peñas Negras" Interpretazio Zentroaren lan-koadernoak.

# Paisaia eraldatzea



**HELBURUAK**

- Lurralde-politikaren eta paisaiaren arteko lotura aztertzea.
- Paisaia atlantikoaren etorkizunari buruzko gogoeta egitea.

***Belardiek osatutako mosaikoen gainetik, paisaia berria barreiatzen da. Baserrietako nekazaritza-jarduera krisian dago; familia bakarrarentzako eraikin gehienetan, baserriaren eredu arkitektonikoa da nagusi, baina belarraren ordez, soropila nabarmenduz doa.***

**Euskal Herriko** isurialde atlantikoko landa-lurraldea baserriaren inguruan egituratu da tradizioz. Produkzio–unitate hori etxeak eta lurrek osatzen dute (lurren azalera oso gutxitan heltzen da 10 ha-ra).

### Baserria: paisaiaren kudeatzailea, lehen eta orain

Baserriak eta horren ustiakuntza-erak itxuratutako landa-paisaia honelakoxea izan zen: mendien maldetan sakabanatutako baso-alorrak eta belardiak. Gizakiaren kolonizazio-prozesua garatu ahala, larrediek ordeztu dituzte basoak. Lurraldea Antolatzeko Artezpideek —LAA deritzenek— honako hau xedatzen dute: *Euskal baserriak Autonomia Erkidegoko landa-paisaiaren atal dira, eta horiek jardunean mantentzeko ahalegina egin behar da*. (Eusko Jaurlaritza, 1997, 123. or.). Gaur egun, LAAen arabera, baserria paisaiaren kudeatzailea da; baina, praktikan, baserrien bi herenetan, nekazaritza ez da inola ere jarduera nagusia. Baserriak etxebizitza baino ez dira, baina nekazaritza ia guztiz galdu da. Paisaia atlantikoko belardi esanguratsuak basoa belarkarek ordeztu izanaren ondorioa dira. Belardiok mantentzeak lan neketsua eskatzen du.

### Gaur egungo alternatibak

Gaur egun, kalitateko janarien ekoizpenarekin eta baserrietako jarduera berriekin lotutako alternatiba berriak bilatzen ari dira: berme-markak, labelak eta jatorrizko deiturak. Landa-turismoa irtenbide bat izan daiteke, jarduera ekonomiko berriak bilatzeari dagokionez. Baserri batzuk aldaketa horietara moldatuz joan dira; baina horiek ez dira baserri guztien %2-ra izatera heltzen. Tradizioz, baserria bere inguruaren kudeatzailea izan da, eta lurraldearen antolamenduak bera zaindu eta babesteko ahalegina egin du beti; hala ere, antza denez, zail samarra da erronka hori eta lurralde-politikaren helburu orokorra bateratzea.

### Lurraldea antolatzeko politikaren oinarriak

Antolamenduaren baitan, belardiak hartzen dituen kategoriak beraien babesa bilatzen du, honako helburu bikoitz honekin: lurzoruen gaitasun agrologikoa eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak mantentzea. Lehentasun horrekin bat, etxebizitza-erabilera bakartua nekazaritzako jarduerarekin loturik baino ez da onartuko; hazkunde urbanistikoa, gainerakoan, lehendik dauden biztanleguneen barruan baino ez da baimenduko.

### Paisaiaren erabileran jazo ohi diren kontraesanak

Gure herri honetan, lurra horren baliabide urria izanik, lurralde-politika bi alderdiren artean ezbaian dabilkigu: batetik, baserria nekazaritzako ustiapen-unitate gisa mantentzeko printzipioa dugu, eta bestetik, *desurbanizazioa* deritzon *premiazko gizarte-beharrizanari* irtenbidea eman beharra.

## ARIKETA: zuen inguruneko nekazaritza-jarduerak

Ariketa honetan, zuen inguruan garatzen diren nekazaritza-jarduerei buruzko informazioa bilatzea proposatzen dizuegu. Eskualdea nahiz udalerria har dezakezue unitatetzat:



- Eskualdean, zenbat lagunek dihardute nekazaritzan?
- Ekonomiaren zenbateko portzentajea dagokio nekazaritzari?
- Nolakoa da inguruneko paisaia?
- Nolako etorkizuna dute zuen inguruneko baserriek?

Informazio horrekin, honako gai hauen gaineko eztabaida antola dezakezue ikasgelan:

- Baserriaren iraganaldia, orainaldia eta etorkizuna.
- Nekazaritzaren eragina paisaiaren iraupenean.
- Administrazioak landa-paisaia eta belardiak babesteko hartu beharko lituzkeen neurriak.

**Informazio gehiago:**

EUSKO JAURLARITZA: **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak**. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. Vitoria-Gasteiz, 1997.

bizkor ibili gero!

# Begirada ezberdinak

**Ihitzville hiriko** eguneroko zurrunbiloan, Juantxo eta Inaxi ez ziren sekula elkartuko, hainbat gertaera bitxiren eraginez izan ez balitz. Juantxo Matematika Hutsean lizentziatuta zegoen; Inaxiri gutxi falta izan zitzaion Medikuntza ikasketak amaitzeko.

Juantxok, bertan behera utzi zuen bigarren hezkuntzako irakasle lana, bost urtez etengabeko nerbio-erasoak jasan ostean; Inaxi odontologo ospetsu baten telefonista ibili zen. Juantxo bakarrik bizi zen, ez zituen bere etxe orratzeko auzokoak jasaten, eta izugarri gustatzen zitzaizkion bildots-txuletak; Inaxik ia ez zeukan hutsarterik agendan, eta okela ez zuen batere gogoko.

Zer dela eta elkartu ziren bi pertsona horiek Ihitzville hirian?

Lana utzi ondoren, bizitzak leku berera eraman zituen: artera. Bai, margolari ospetsu bihurtu ziren biak. Baina... Ihitzvillen ehunka artista daude... nola gertatu zen, bada? 2000ko urriaren 11ko gauean, bi artistek ez zuten begirik bildu, Ihitzville hiriaren fundazioaren mendeurrenerako erakusketa prestatzeko ardurak aztoraturik: ez zekiten zer arraio margotu. 2000ko urriaren 12an, goizean, Miyuneko geltokian hartu zuten biek metroa; biak Pintxuten jaitsi eta metroaren ahotik hurbil gelditu ziren, ehunka ihitzvilletar irteten ari zirelarik.

Juantxok eta Inaxik nork bere koadernoa, arkatza eta betaurrekoak (miopeak ziren eta) atera zituzten: metro-ahoa eta, ihesi bezala, jende guztia etxera korrika zihoan une hori hasi ziren biak marrazten, lasterka. Horrelaxe ezagutu zuten elkar. Eta horrexegatik bisitatu zuten geroago elkarren erakusketa. Juantxoren koadroetan, triangeluak, zirkuluak, hexagonoak eta mota guztietako geometria koloretsuak besterik ez ziren ageri; Inaxik margotutako ahotik irteten ziren pertsonak, aitzitik, guztiz errealak ziren, *baina, nora zoaz hain azkar?* galdetzeko gogoa pizterainokoak. Sinesgaitza da; Juantxok eta Inaxik 3na dioptria zituzten, bai, baina bien begiradek ez zeukaten inolako zerikusirik elkarrekiko, bien bizitzek ere inoiz zerikusirik izan ez zuten bezalaxe.

Orain, zuen txanda heldu da: Andoni, Nerea, Joana, Mikel eta abar izango zarete, nor bere begiradarekin (betaurrekoak erabili nahiz ez erabili). Aukeratu guztiok hiriko leku bera (parkea, kalea, etorbidea...), binaka, hirunaka edo zuek nahi duzuen bezala, eta marraztu arkatzez edo margotu koloretan. Lortzen duzuen paisaia sekula ez da besteena bezalakoa izango.

**Iradokizuna:**

Ikasgelan, marrazki guztien erakusketa antola dezakezue; lehiaketa ere egin dezakezue: ea nork batzen dituen motibo bera erakusten duten marrazki gehien.



# Uno contra todos o todos para uno:

## La educación ambiental se hace política



*Santiago Campos*

De la revista CICLOS.



**Guapo o feo.** Blanco o negro. Mucho o poco. Este mundo nos desborda y lo intentamos organizar y clasificar. Y los pares de extremos aparentemente nos dan buen resultado... al menos por lo que hacemos uso de ellos.

Yo o nosotros. Mi libertad o nuestro bienestar. También en lo político se ha optado por el juego de las parejas. En lo social, el paradigma del buen gobierno, la democracia, se basa en la igualdad de las personas. Pero en el otro extremo, el paradigma del sistema económico es la desigualdad. En la democracia, el poder está en la ciudadanía, que de forma colectiva decide auto-organizarse. En el capitalismo, el poder lo tiene el ganador, el que más capital acumula. La lucha es entre el rico y los pobres, entre el individuo y el grupo, entre mi libertad y nuestro bienestar. Y la *lucha* entre estas dos orillas es el diálogo entre las formas de entender el mundo, los extremos de un debate que tiene que ver con la globalización, con la equidad, con la ética... ¿y con la educación ambiental?

### En qué andaba la E.A.

Mientras el mundo se plantea a sí mismo, nosotros nos hemos dedicado a lo nuestro, que no es poco: dar ideas, proponer remedios, mostrar pistas… para que la ciudadanía adquiera sensibilidades y hábitos hacia su/nuestro entorno. Cuántos talleres, charlas, materiales, campañas… dirigidas a mostrar lo importante que es reciclar papel, cerrar el grifo o preferir el autobús.

Ante crisis globales, crisis que —no nos hemos cansado de repetir— son el resultado de formas *equivocadas* de establecer las reglas del juego de la sociedad, las fórmulas que hemos puesto en marcha han estado dirigidas al individuo, convencidos de que en él está la virtud del cambio. Nos ha preocupado la suma de miles de esfuerzos para dar lugar a cambios ambientales. Aunque no lo reconocemos, hemos querido crear culpables ambientales ante culpas de las que no tienen apenas responsabilidad. El paso a la acción, que reivindicamos como imprescindible, se ha quedado demasiadas veces en un recetario de sugerencias de consumo...

Y eso está bien, o al menos no está mal. Pero quizá no sólo no sea suficiente, sino que sea, incluso, desacertado. Pocas veces, al tratar el tema de los residuos, cuestionamos públicamente su tratamiento; escasísimas son las campañas sobre el agua que discuten la gestión de la oferta. Y son esos modelos de gestión los máximos responsables del problema de los residuos o del despilfarro de agua.

### Nos hemos posicionado

Y es que en la educación ambiental también aplicamos, quizá de forma inconsciente, un modelo político a nuestra actividad. Hay educación ambiental neoliberal, ya lo dijo Pablo Neira hace unos años, pero no sólo porque es apadrinada por entidades de dudosa conciencia ambiental, sino porque promueve la resolución individual de los problemas: cierra el grifo, recicla tus basuras, no consumas productos sobreenvasados… y alégrate de que vas a mejorar el mundo. Cierra los ojos al resto. Y que no te interese de dónde viene el agua de tu grifo. Estamos haciendo educación ambiental neoliberal.

Pero ya es hora de encarar el reto social de la sostenibilidad: o nos enfrentamos a la tarea colectiva de cuestionar lo insostenible y a la solución compartida de los problemas, o nos quedamos haciendo talleres de papel reciclado. Si fuéramos paranoicos podríamos pensar que la educación ambiental no es sino un bonito decorado para la institución, un entretenimiento para que la ciudadanía tenga la conciencia tranquila, y un motivo para tener a activistas atareados.

Cada actividad humana tiene implicaciones políticas. Y la educación ambiental también. Haciendo educación ambiental estamos cuestionando el modelo social, estamos reivindicando otra forma de afrontar los problemas, y un ansia de hacerlo entre todos. O al menos deberíamos hacerlo. Democracia la define Josep Ramoneda por su negativo: es aborrecer la autocracia. Teresa Franquesa (¿sólo se piensa en Catalunya?) hace lo propio con el término *sostenible,* que sólo acierta a definir por su contrario, lo insostenible. ¿Es una coincidencia?

### El colofón

Ojala que no tenga los efectos previsibles. Que nuestra apuesta por el individuo no se nos vuelva en contra; que no signifique afianzar el individualismo en unos problemas que precisamente precisan a gritos el colectivismo. Que éste que hemos dado sea un paso necesario para la asunción de la responsabilidad colectiva, del activismo *político–ambiental,* pero ¿hemos dejado lo difícil por lo seguro, lo útil por lo cómodo? Hace unos meses leí que el altruismo, el trabajo para el otro, da lugar en nuestro organismo a una explosión de endorfinas, las hormonas del placer. O sea que ayudar, además de dar buen rollo, es bueno para el cuerpo. ¿Vamos a privar de ello a nuestros sufridos *destinatarios*?.







*Neguan, mendiak ikuspegirik idilikoenetakoak erakusten ditu, baina kontuz ibili behar da, eta ingurua ezagutzen duen norbaitekin joan.*

### Ibili eta ibili

# *EAEko Mendizaleen Federazioko kide diren elkarte edo taldeak*

**Ezagutzen dituzue** mendi hurbilenak eta inguruan dauzkazuen bidezidorrak? Agian, mendira joatea kirolarien kontua dela uste duzue, edo autorik gabe, ezinezkoa dela hiritik irtetea, edo zuen familiako edo lagun-taldeko inori ez zaiola horrelakorik bururatzen... Hala ere, hori ez da arazoa; Euskal Herriko mendizale-talde federatuen zerrenda luze-luzea da. Taldearekin harremanetan jarri eta animatu besterik ez duzue. Talde bakoitzak urte osorako irtenaldien egutegia du; batzuk, hurbileko gailur eta mendietara ez ezik, aldameneko probintzietara ere joaten dira (Burgos, Kantabria, Asturias...), bai eta urrutiago ere, ausartenak. Anima zaitezte, inguruan daukazuen paisaia jorratzeko unea heldu da. Ondoren, elkarte batzuen zerrenda eskaintzen dizuegu; horien bidez, zuen Lurraldeko beste batzuekin ere jarri ahalko zarete harremanetan.

ARABAN

**Uztargi Mendizale Taldea: aukera sorta ederra**

Mendi-irteerak egiteko proposamena *La Presentación de María* ikastetxeko gurasoena izan zen, 1987an. Urte asko iraganda, gaur egun mendizale orori irekitako taldea da. Antolatzen dituzten irtenaldien zerrendan mota guztietakoak aurki daitezke: hurbil zein urrun dauden mendietarakoak (Txindoki, *Ayuda* mendiko haitzartea, *Picos de Europa*...) bai eta hiru mila metroko batzuk ere (*Monte Perdido*, esaterako). Duela urte batzuk, Donejakue bidea egiten hasi ziren, etapaz etapa. Haien web gunean, aurtengo egutegiari buruzko informazioa aurki dezakezue: nondik irtengo diren, zelako zailtasuna duen proposatutako txangoak, eta abar. Gainera, argazki ederrak dauzka ikusgai.
Paraguay, 13-7ºC. Vitoria-Gasteiz 01012.
✆ 945 270 543.
(19:00etatik 21:00era)
www.viajemania.com/montana/clubs/alava.htlm

BIZKAIAN

**Deustuko Menditarrak: tomatezale ibiltariak**

Egoitza Deustun daukan mendi-talde honek tradizio luzea du. Bizkaiko mendietarako irtenaldiak (Ganekogorta, Gorbeia...) egiteaz gain, aldameneko lurraldeetara ere joaten dira (Izkiko mendiak, Testa mendizerra, Urederra...). Horrez gain, soka, orientazio eta bestelako ikastaroak eskaintzen dituzte. Taldearen web gunean, mendiko paisaiak erakutsi eta mendiarekin zerikusia duten beste gune batzuetarako loturak eskaintzen dituzte, besteak beste.
Iruñea, 3-atzealdea. Bilbo.



## SARETIK BUELTAKA

**Kostako paisaia mugimenduan**
**http://deba.net/webcam.asp**
**Lau hizkuntzatan (gaztelaniaz, frantsesez, euskaraz**




**eta ingelesez) dagoen web gune honetatik mugimenduan ikusi ahalko dituzu Debako hondartzak —itsasertzean hausten diren olatuak, kostan dabilen ibiltariren bat...—. Era berean, pasealekua, harri-lubeta eta beste panoramika batzuk ere ikusteko aukera izango duzu, mugimenduan guztiak. *Deba natural* izenburuko atalean, inguru horretan egin daitezkeen ibilbideei eta eskaintza kulturalei buruzko informazioa ematen da.**

**Gustu guztietarako eskaladak**
**www.desnivel.com**
***Desnivel* izena sekula entzun ez baduzu eta mendiarekin lotutako**

✆ 94 479 681.
(astearte eta ostegunetan, 20:00etatik 21:30era).
www.menditarrak.es.vj

GIPUZKOAN
**Jaizkibel Mendizale Taldea: mendi-ibilaldiak baino gehiago**
Talde honek gure erkidegoko eta beste batzuetako (Nafarroa, Iparralde...) aterpe guztien zerrenda aurkezten du bere web gunean, bai eta euskal mendi eta gailurren katalogo oso–osoa ere. Elkarte honetako mendizaleek hurbileko mendietara (Zumarraundi...) zein urrunagoko beste batzuetara (Kantabriako *Pico de la Miel*, Burgoseko *Sierra de la Demanda*, eta abar) egiten dituzte irteerak. Horrez gain, aisialdiko beste jarduera batzuetan ere parte hartzera gonbidatzen zaituzte.
Oaso, 1-1.C. Pasai Antxo.
✆ 943 514 700.
(astearte eta ostiraletan, 20:00etatik 21:30era).
www.usuarios.lycos.es/jaizkibel



*Mendizaletasuna kirola baino gehiago da; izadiaz eta adiskidetasunaz gozatzea da.*

## ALDIZKARIAK

# Pyrenaica




Pyrenaica Euskal Mendizale Federakundearen aldizkari ofiziala da. Sortu zenetik 75 urte bete berri dituela, ezinbesteko erreferentzia da mendiari buruzko argitalpen espezializatuen arloan, euskal esparruan ez ezik, Espainiako estatu osoan ere bai. Aldizkaria EAEko eta Nafarroako federatu guztiei (22.000 baino gehiago) eta Espainiako zenbait mendi-talderi banatzen zaie, eta hiru hilerik behin argitaratzen da. Aldizkariaren edukiak mendizaleek bidaltzen dituzten esperientzia, ezagutza eta ekarpenetan oinarrituz taxutzen dira. Argitalpen-lan bikainari esker, erabateko kalitate-maila profesionaleko produktua helarazten zaie irakurleei.

## Irakurgaiak

# Gipuzkoa bizikletan

### 10 ibilbide Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Lapurdin zehar

Gipuzkoako Foru Aldundia.
Kalapie Elkartea.

Kalapie elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Gipuzkoako lurraldea pedalei eraginez zeharkatzeko gida argitaratu berri du, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan. Gidak 10 ibilbide aurkezten ditu, bakoitzaren zailtasuna, egin beharreko distantzia, zirkulazioa, zirkuitu mota eta abar azaltzen dituen fitxa banarekin. Hori guztia zehatz-mehatz ageri da planoetan, eta bidean ikusten diren leku eta herriak, ezaugarri kultural eta naturalak eta abar ere aipatzen ditu. Gidan azaltzen diren ibilbideetako batzuk Gipuzkoako muga geografikoetatik kanpo daude, baina hori ez da gehienen kasua. Aipatutako 10 ibilbideez gain, etorkizunari begira txirrindulari-bideak eraikitzeko dauden egitasmoak, bizikleta erosterakoan aintzat hartu beharreko aholkuak, lapurrak saihesteko gomendioak eta abar aurkituko dituzue bertan. Eta amaieran, bizikletarekin zerikusia duen guztiari buruzko bibliografia dago.




# Punttu berdea

**Joseba Artza** Etxebarrian (Lea–Artibai) jaio zen 1978an; bertsotarako zaletasuna herriko eskolan sortu zitzaion eta orduan hasi zuen bere ibilbidea bertsolaritzan. Eskolarteko txapelketetan sari bat edo beste jasotakoa da eta, gaur egun, Bizkaiko Txapelketan parte hartzen du. Horrez gainera, bertso saioetan parte hartzen du deitzen diotenean. Conservas Ortiz enpresan egiten du lan, Ondarrun.

*Hondartza, baso, ibai*
*mendi ta inguru*
*begiratzeak gugan*
*Bakea sortu du*
*zentzumenak sarritan*
*gozatu ditugu*
*hala ere, paisaia*
*ez dago seguru*
*miresten dugun haina*
*zaintzen ez badugu.*

*Pertsonak sena dauka*
*aldaketarako*
*beti ez da izaten*
*denon onerako*
*daukaguna zaintzea*
*ez legoke txarto*
*bizi garen leku hau*
*altxor bat delako*
*zaindu dezagun ondo*
*datozenentzako.*

Neurria: Hamarreko Txikia
Doinua: Lagundurikan denoi.




**guztia —txangoak, eskalada, argitalpenak, gidak eta abar— interesatzen bazaizu, gogoko izango duzu argitalpen hau. Mendiari buruzko aldizkari espezializatua da (ziurrenik espezialitate honetako onena). Bere web gunean, eskalada-gidei, txangoei eta beste hainbat alderdiri buruzko informazioa ematen du. Halaber, gaiarekin lotutako albisteak, literaturako *Desnivel* sariaren oinarriak, argazki-katalogoa, eta bideoen izenburuak aurkituko dituzue, besteak beste.**

**Izaditik hartutako opari polita**
**www.poliki.net**
**Ziurrenik, honezkero, agortuta dauzkazu posta elektronikoz *Zorionak* esateko bidaltzen diren irudi horiek, eta, askotan, agur hutsa baino beste zerbait igorri nahiko zenuke. Horrela bada,**



**hementxe daukazu behar duzuna. Udazkena datorrela, Artikutzako basoko urre eta su koloreko haritzen irudiak aurkituko dituzu; udaberria hurbil dagoela, Oria mendiko Zilarrezko Itsasargiko loreak... Katalogo luze-luzea daukazu, gustukoena aukera dezazun: Urumea ibaiko uren irudia, Zumaiako ilunabarrak, Txindoki mendia, eta abar.**





*Vista panorámica de Laguardia. Al fondo, la Sierra de Cantabria, en la divisoria de las cuencas cantábrica y mediterránea.*

# De paseo por Laguardia

***Un casco urbano medieval, histórico y acogedor, junto a un entorno agrícola de gran riqueza, que nos brinda la posibilidad de disfrutar de una rica variedad de paisajes.***

**Al abrigo** de la sierra de Cantabria, Laguardia se sitúa sobre una roca que domina la comarca. Desde Peñacerrada, el paisaje agreste, poblado por encinas, cambia radicalmente al bajar el puerto de Herrera. Desde el Balcón de la Rioja podremos contemplar la llanura que, ya en tiempos de Roma, fue solaz de sus visitantes por sus baños y el microclima del que disfruta, y que, junto a un suelo excepcional para el cultivo de la vid, ha dado lugar a uno de los mejores pagos de viñas del mundo vitícola.

Laguardia es Villa, proclamada en 1164 por Sancho el Sabio de Navarra, que le concedió el fuero de Población. Su espléndida muralla está tan bien conservada que las puertas aún ostentan los batientes. Domina la ciudad la Torre Abacial, de los siglos XII-XIII. También destaca la Iglesia de Santa María de los Reyes, de estilo gótico tardío, aunque con otras aportaciones, y de un claro carácter defensivo.



*La muralla que rodea la villa le confiere una gran personalidad.*



*Sorginetxe es uno de los vestigios prehistóricos más destacados.*

Su espectacular portada, de cinco arquivoltas esculpidas, policromada en el siglo XVII, constituye la imagen emblemática de la villa. Al otro extremo del pueblo se encuentra la Iglesia de San Juan, de portada y nave góticas, con una ampliación del siglo XVIII. Son también dignos de mención el antiguo Ayuntamiento renacentista, en cuya fachada destaca el escudo de la villa, un reloj con carillón y unos autómatas articulados que, puntualmente a las 12 del mediodía y 8 de la tarde, danzan al ritmo del pasacalles y las fiestas. En la misma plaza se encuentra la casa natal del fabulista Samaniego, una más de las numerosas casas solariegas, entre las que está la de la Primicia, de finales del siglo XIV y principios del XV, y de estilo gótico, que aún conserva la tablazón original de la puerta. Como rasgo curioso, todas las casas tienen su bodega, por lo que el subsuelo está completamente perforado, siendo peatonal prácticamente todo el casco urbano.

No lejos del núcleo urbano se encuentran el Poblado de la Hoya, de la Edad del Bronce, y Sorginetxe, el monumento megalítico más destacado entre otros. Las Lagunas de Laguardia constituyen otro de los atractivos de la zona. Se trata de un biotopo protegido de gran valor ecológico. Engloba cuatro pequeños humedales: tres de ellos, Carralogroño, Carravalseca y Musco, son lagunas temporales endorreicas, de origen y funcionamiento natural; mientras que el cuarto, el Prao de la Paul, es un pequeño embalse creado sobre una antigua zona encharcada.

Las lagunas de Carralogroño y Carravalseca son los últimos ejemplos de una serie de humedales que fueron desapareciendo al ser desecados para su puesta en cultivo. Este sería el caso de la laguna de Musco, drenada, desecada y cultivada hasta su declaración como Biotopo.

# Paisaia baliabidea den aldetik

**IHITZAREN 4. ZENBAKIAN** esan genuenez, gune babestuak eta horien ingurumen- zein kultura-aberastasuna ezagutzeko baliabide didaktikorik onena gune babestuak eurak dira; beraz, guneok ezagutzera joatea dugu onena. Paisaiari buruz antzeko zerbait esan dezakegu. Paisaia hurbilari zuzenean behatzea da inguru hurbileneko historia, hots, gure herri eta auzoen historia batere ezagutzen ez dugula konturatzeko modurik onena. Paisaiak —landa-paisaia, hiri-paisaia nahiz paisaia natural izan— historiaren gorabehera guztiak gordetzen ditu, bere fisonomiaren xehetasunik txikienean ere. Ondare hori aurkitzea ez da zeregin erraza, historia txikia aise ahaztu ohi da eta; baina, zorionez, hortxe dauzkagu adineko pertsonak, oroimenaz baliatuz euren bizipenen berri eman diezaguketenak.

Agian, orduan, herriaren ondotik igarotzen den autopistari begiratzean, duela ez asko, egunez egun eta urtez urte goizero, astoak tiratutako bere gurdiarekin eta zintzarriari eraginez, handik pasatzen zen esne-banatzailea ikusteko aukera izango dugu, irudimenaren begiez bada ere.

## Urdaibaitik Euskal Herrira

### Urdaibai Proiektu Didaktikoa

### Urdaibaiko ingurumenaren analisia paisaian oinarrituz

CAÑO, A.; HERNÁNDEZ, R.; ALZIBAR, K.

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 2003.

Gernikako Institutuan lau unitate didaktiko landu dituzte. Alfonso Caño, Ricardo Hernandez eta Kontxi Alzibar irakasleek garapen jasangarria izan dute erreferentzia eta helburu nagusia. Unitateak garatzeko ardatza Urdaibaiko paisaia esanguratsuenen azterketa izan dute. Eskualdea bere osotasunean eta konplexutasunean aztertzeko aukera izan dute. Unitateak autonomoak dira bata bestearekiko. Unitateetan agertzen diren materialak Batxilergora zuzenduta daude, eta bereziki erabilgarriak dira Biologia-Geologia eta Geografia-Historia sailetako jakintzagaietan. Proiektu didaktiko honen erreferentzia geografikoa Urdaibai izan bada ere, egileek ez dute nahitaez eskualde horretara mugatu nahi izan. Izan ere, landu dituzten gaiak eta erabilitako




metodologia Euskal Herriko eskualde ezberdinetan aplika daitezke, zailtasunik gabe, egileen iritzian.

## Baliabideak Interneten




**www.educared.net/aprende/miraryver/f-myvframe.htm**

Educared hezkuntza-atari ezagunaren barruan, hezkuntzako baliabideen atalean, artelanak ikusi eta nola egin diren jakin dezakegu. Paisaia ohikoak ez diren beste arlo batzuetatik —Plastika edo Arte arlotik, esaterako— lantzeko aukera egokia izan daiteke. Paisaiak erakusten dituzten margolan ospetsuak ikusteko loturak edo estekak aurkezten ditu, Van Goghen lanetako paisaia aztertzeko, adibidez.

**www.indicedepaginas.com/index.html**

Lehen Hezkuntzako 4. mailako talde batek, Santillana argitaletxearen Inguru Naturalaren Ezaguerari buruzko testu–liburuan oinarrituz eta argitaletxe berorren softwarea erabiliz, paisaiaren inguruan egindako web gunea. Bereziki interesgarriak dira urtaroekin loturiko irudiak eta soinuak batzen dituen ekoegutegia eta klimari eta meteorologiari buruzko esaerak.

**www.paisajesespañoles.es/index2.html**

Bigarren Hezkuntzako Hiri Geografia gaia lantzeko oso material egokia, hainbat herrialde eta kontinentetako hirien irudiak eta horiei buruzko datuak aurkeztu ez ezik, beraien ezaugarriak eta hazteko modua ere azaltzen ditu eta. Hiri-paisaiaz mintzatzean, Europako, Amerikako eta Asiako hainbat hiri aurkezten ditu adibidetzat. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan erabiltzeko gomendatua.

**www.bizkaia.net**
**www.gipuzkoa.net**
**www.alava.net**



EAEko Foru Aldundien web guneetan, udalerrien airetiko argazkiak, kale-izendegiak, errepide-mapak eta obren mapak ikus daitezke. Oso lagungarriak dira Inguru Natural eta Sozialaren Ezaguera eta Geografia arloetarako.

**www.mma.es/parques/lared/index.htm**

Ingurumen Ministerioko web gune hau oso interesgarria da bai ikasleentzat, bai irakasleentzat, bertan Espainiako estatuko gune babestuei eta parkeei buruzko informazioa agertzen da eta. Edertasun handiko argazkiak aurki daitezke bertan, eta Pirinioen Aragoiko aldean dagoen Ordesako Parkearen kasuan, ibilbide birtuala ere ikus daiteke.

# Material didaktikoak



CEIDAn ESKURAGARRIA







## Desertifikazioari buruzko kit pedagogikoa

UNESCO, 2001.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan erabiltzeko egokia. Komikiak, horma-irudiak, irakasleentzako gida eta ikasleentzakoa dakartza, egoera praktiko ugarirekin. Paisaiaren osagaiak hautemateko jarraibideak eskaintzen ditu. Gainera, bioaniztasuna lantzen du, eta paisaia eta habitat mota bakoitzeko izakien moldaerak azaltzen ditu. Beraz, material ezin hobea eskolarako.

## *Primavera, Verano, Otoño, Invierno*

### *Actividades creativas para la educación infantil*




Parramón. Bartzelona, 1997.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan erabiltzeko lau liburu. Oso baliagarriak dira paisaiek urtaro bakoitzean erakusten dituzten ezaugarriak aurkitzeko, Plastika arloan txantiloi sinpleen bidez lantzeko proposamenak batzen ditu eta.

## IRAKURGAIAK

### *Viviendo el paisaje. Guía didáctica para interpretar y actuar en el paisaje*

BENAYAS, Javier eta beste batzuk.
NatWest fundazioa, 1994.

Paisaiaren behaketa landu nahi duten irakasleentzako aukera ederra. Hainbat paisaia motaren adibideak aurkezten ditu. Gizakiok paisaiarekiko dugun jarrera aztertzeaz gain, paisaia-aniztasunari eta paisaiek jasandako inpaktuen ebaluazioei zein susperketari buruz ere mintzo da.




Oso material egokia da bai Lehen Hezkuntzako goi-zikloetako irakasleentzat, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoentzat.

## *Nafarroako basoak*

ARROYO, Tomás eta beste batzuk. Nafarroako Gobernua, 1999.




Unitate Didaktiko hau oso interesgarria da Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetarako, ikasketa-proiektuko hainbat arlo aipatzen ditu eta. Era berean, zenbait irteera proposatzen ditu, ikuspegi fisikoan, biologikoan eta antropologikoan oinarrituz eta paisaia baliabide didaktikotzat erabiliz.

## ALDIZKARIAK

**Pirinioetako mundua**

### El mundo de los Pirineos




Irakaskuntzako edozein ziklotan erabiltzeko gomendagarria. Artikuluak ingurumenaren ikuspuntutik planteatzen dira. Ibilbideak proposatzen ditu, eta baliabidetzat aurkezten du paisaia. Pirinioetako informazio guztia izateko (herriak, gailurrak, landaretza, liburuak...) argitalpen ezinbestekoa duzue hau. Iadanik argitaraturiko zenbakiak ezagutzeko, hona hemen web-gunea: elmundodelospirineos.com

## EKIPAMENDUAK

## *Lurraska Ingurugiro Zentroa*

Erein duzu inoiz barazkirik? Badakizu behiak jezten? Eta ogiaren orea egiten? Eta egunkari zaharrekin papera egiten? Ezagutzen duzu erleen mundua? Ezetz? Bada Lurraskan gauza horiek guztiak eta beste asko ikasi eta praktikan jarri ahalko dituzu. Lurraskan, ikasle gazteenek ez ezik, helduen taldeek ere gozatzen dute lehen ia guztientzat egunerokoak ziren eta orain, hiriko bizimoduan, ahaztuta dauzkagun zeregin horiek egiten. Praktikaz ikasi egiten da; ezagutuz balioetsi egiten da; balioetsiz errespetatu egiten da, eta errespetatuz ingurumenarekin harrreman ona izatearen garrantziaz ohartzen gara.

Lurraska Ajangizen dago, Gernikatik kilometro batera, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren erdi-erdian; horregatik, aniztasun handia eskaintzen du, ingurumen-hezkuntza, kirol eta aisialdiko jarduerak garatzeko ingurune eta paisaiei dagokienez.

Kanpantxu auzoa
✆ 946 257 245
lurraska@lurraska.com



*Lurraska Ingurugiro Zentroaren ikuspegi panoramikoa.*

## *La magia de los árboles*

ABELLA, Ignacio.
Integral. Bartzelona, 1997.




Ikasleek zein irakasleek erabiltzeko modukoa. Dibulgaziozko testuen taxuz tratatzen du zuhaitzek ingurunean duten zeregina, zuhaitzak landatzeko eta zaintzeko modua, eta paisaiaren itxuraketan duten eragina ere. Argitalpen honek tratamendu botanikoa eta antropologikoa bateratzen ditu. Bereziki aipagarria da argazkien kalitate handia.

## *Las evaluaciones de impacto ambiental*

OLMEDA, Concha.
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen, Zerbitzu Nagusia. Gasteiz, 1991.

Batxilergoaren barruko Lur eta Ingurumen Zientzien arloan eta Ingurumen Kimikako goi-mailako moduluetan erabiltzeko egokiak diren liburua eta bideoa. Denboran zehar ingurunean gertatu diren aldaketarik garrantzitsuenak azaltzen ditu. Paisaiaren kudeaketan, oso baliabide ekonomiko gutxirekin aldaketa sakonak lor daitezkeela frogatzen du lan honek. Horrez gain, aldaketa horiek eragiten dituzten prozesuak abian jartzeko metodologia ere proposatzen du.
Bideoak oso lagungarriak izan daitezkeen adibide praktikoak azaltzen ditu. Azpiegitura handiek aldaraz ditzaketen ingurumen-parametro guztiak lantzen dira, eta inpaktuak ahalik eta gehien murrizteko modua ere aipatzen da.



# Eskolako Agenda 21 gero eta ikastetxe gehiagotara zabaltzen ari da

# Crece la implantación de la Agenda 21 Escolar en los centros de enseñanza

*Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko Agenda 21 garatzen ari diren zenbait herri eta mankomunitatetako ikastetxeak hasi dira beren Eskolako Agenda 21 egiten (Ikusi erantsitako mapa). Gai honen inguruko argibideak lortzeko, jar zaitezte CEIDArekin harremanetan.*

*Cada vez son más los municipios implicados en la Agenda Local 21, que empiezan a poner en práctica la Agenda 21 Escolar. En el mapa figuran algunos. Para cualquier aclaración sobre estos temas os podéis poner en contacto con el CEIDA más próximo.*




***IHITZAren ale guztiak sarean:* www.euskadi.net/ihitza *Todos los números de IHITZA en la web***

***Gai hauek prestatzen gabiltza:***

***14 zk.: Aisialdia.***
***15 zk.: Osasuna.***
***16 zk.: Ondarea.***
***Zuen ekarpen eta iradokizunen zain gaude.***

***Números en preparación:***

***Nº 14: El tiempo libre.***
***Nº 15: La salud.***
***Nº 16: El patrimonio.***
***Esperamos vuestras aportaciones y sugerencias.***

**CEIDA** ***ingurumen heziketa zure eskura***


**BILBAO**
**Ondarroa, 2**
**48004 Bilbao**
- **944 11 49 99**
- ceida-bilbao@ej-gv.es

**URDAIBAI**
**Udetxea Jauregia**
**48300 Gernika–Lumo**
- **946 25 71 25**
- urdaibai@ej-gv.es

**DONOSTIA**
**Basotxiki, 5**
**20015 Donostia**
- **943 32 18 59**
- ceida-donosti@ej-gv.es

**LEGAZPI**
**Brinkola, z/g**
**20220 Legazpi**
- **943 73 16 97**
- ceida-legazpi@ej-gv.es

**VITORIA–GASTEIZ**
**Baiona, 56–58**
**01010 Vitoria–Gasteiz**
- **945 17 90 30**
- ceida-vitoria@ej-gv.es



EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN